



**ZERBITZUAK EMAN EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIKO
PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA. Zornotza
Aretoa, Kultura eta Gazteria sailak, Euskara eta Kultura
Zerbitzuen Fundazio Publikoak (Euskaltegiak), Jauregibarriako
landetako kamioien aparkalekuan**

1. artikulua.

Eranskinean azaltzen diren prezio publikoak ezarri eta exijitzen dira udal zerbitzuak eman edo jarduerak gauzatzeagatik. Ordenantza honetan adiera-zitako arauen arabera exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.

Ordenantza hau udalaren eremu osoan aplikatuko da.

3. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren prezio publikoak zerbitzuak edo jarduerak jasotzen dituztenek ordaindu beharko dituzte.

4. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren prezio publikoen zenbatekoak Eranski-nean agertzen direnak dira.

5. artikulua.

Diru-kopuruak eskatu edo egindako zerbitzu edo jardueragatik ordainduko dira eta laburtezinak izango dira dagozkien epigrafeetan agertzen diren zenbatekoetan.

6. artikulua.

Ordenantza honetan aipatzen diren udal zerbitzuak eman edo jarduerak burutzeko, zerbitzu edo jarduera horietarako baimena eskatu beharko zaio aldez aurretik Udal Administrazioari; dena dela, Ordenantza honetan arautzen diren prezio publikoak ordaintzen direnean emango dira baimenok; eta behin luzatzen direnan Prezio publiko hori ordaindu ezean, ez da emango zerbitzu edo jarduerarik.

7. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren prezio publikoak ordaintzeko beharra zerbitzu edo jarduera ematearekin batera sortzen da.

Hala ere, emandako eta luzatutako zerbitzuak edo jarduerak badira, ordaintzeko beharra dagozkien tarifetan ezartzen diren periodo natural bakoitzaren lehenengo egunarekin batera sortzen dira.

8. artikulua.

Prezio publikoaren ordainketa honelaxe egingo da:

a).- Zerbitzuak eman edo jarduerak burutzearen kasuetan, udal diru-kutxetan sartuko da zuzenean diru-sarrera, zerbitzua eman edo jarduera burutu aurretik eta bertan ezartzen den zenbatekoan.

b).- Zerbitzuak eman edo jarduera burutzearen kasuetan eta zuzeneko ordainketa posible ez bada, Administrazioak dagokion faktura aurkezten duenean.

c).- Urteko zerbitzuak eman edo jarduera burutzearen kasuetan, prezio publikoen matrikulak sartzen direnean, urte naturaleko.

d).- Kamioien aparkalekuari buruzko zerbitzu ematea denean, prezio publikoen matrikuletan sartu ondoren, egutegiko hilabeteko; zerbitzu ematearen alta edo baja kasuetan izanik ezik. Kasu hauetan kitapena hamabostero egingo da.

9. artikulua.

Prezinoa ordaintzera derrigortua dagoenari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik zerbitzua edo jarduera eman edo betetzen ez denean, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

10. artikulua.

Prezio publiko hauen zorrak premiazko administrazio-prozeduraren bidez eska daitezke.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere Eranskina barne, Udalak 1998ko urriaren 28an egindako Osoko Bilkuran onartu zen behin-behingo. Ondoren, 1999ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran aldatu zen lehenengoz, 2000eko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuran bigarren, 2001eko irailaren 27an egindako Osoko Bilkuran hirugarren, 2002ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran laugarren, 2002ko abenduaren 27an egindako Osoko Bilkuran bosgarren, 2003eko abenduaren 27an egindako Osoko Bilkuran seigarren, 2003eko urriaren 15ean egindako Ezohiko Osoko Bilkuran zazpigarren, 2004eko urriaren 13an egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran zortzigarren eta bederatzigarren 2004eko urriaren 14an egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2005eko abenduaren 23an.

Aldaketa hau 2006ko irailaren 27an egin zen Ohizko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko 2006ko azaroaren 21an. 2007eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du harik eta bera aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA

A) EPIGRAFEA: ZERBITZUAK EMAN EDO JARDUERAK BURUTZEA ZORNOTZA ARETOAN

ZINEMA

2007

- Ohiko sarreraren prezioa 3,80 €
- Umeentzako zine-saioaren prezioa 2,50 €
- Zine-klubaren saioen prezioa 3,20 €
- ABONOA, ZINE-KLUBeko zikloko 4 pelikulatarako 9,00 €

ZUZENeko IKUSKIZUNAK

2007

- Profesionalen ikuskizunetarako sarreraren prezioa tarte honetan 1,50 € y 20,00 €
- Ikuskizun amateurretarako edo gainontzekoek antolatutakoetarako sarreraren prezioa tarte honetan 0 y 16,00 €

BAZKIDEAK

2007

- Norbanakoaren urteko kuota Zelaieta Zentroaren kontzertu gelako ikuskizunak barne 30,00 €
- Familia-abonoa: Familia bateko (senide zuzenak) 2 bazkidetik aurrera, gainontzeko bazkide bakoitzak ordainduko du 15,00 €
- 14 urte baino gutxiago dituztenentzat eta Gazte Txartela dutenentzat 15,00 €

Urteko bazkide kuotan hobari bat izateko eskubidea izango dute udalerrian erroldatuta izan eta famili unitateko kide bakoitzeko urteroko sarrera batzuk justifikatzen dituztenek. Sarrera horiek ondoko taularen arabera izan beharko dira:

25%-----3.605,00 € tik 4.184,00 € ra
50%-----3.037,00 € tik 3.604,00 € ra
75%-----2.025,00 € tik 3.036,00 € ra
100%-----2.024,00 € tik behera

ZUZENeko IKUSKIZUNETAN DESKONTUAK ETA ABONOAK

- Bazkideak orokorrean: sarrerako prezioaren %25
- Lanik egiten ez duten 21 urte baino gutxiagoko bazkideak: %50
- Ondokoetako bazkideak, adierazitako ikuskizunetan: ARRIOLA, San Agustin Kultur Gunea, Gran Cinema de Ermua, Basauri Social Antzokia eta Barakaldo Antzokia: erakundeak eta taldeak (gutxienez 12): %25
- Ikasle taldeak (gutxienez 12): %50
- Denboraldiko abonoa
- Zikloetarako edo denboraldirako (zartzueta, Gabonak, ...) prezio guztien batuketaren gordinaren gainean %10 eta %50 artean.

ZORNOTZA ARETOAREN ALOKAIURUA	2007
- Egun erdi (4 ordu gehienez)	374,96
- Egun osoa (8 ordu gehienez)	573,48
- Jaiegun erdi	468,70
- Jaiegun osoa	716,85
- Soinu-aparatuen, argiztapenaren zerbitzuen beharra badu	224,20 €/jornada
- Lan teknikoaren beharra badu	26,75 €/orduko
- Laguntza lanaren beharra badu	22,50 €/orduko

Aretoaren alokairuan ondokoak sartzen dira: Zornotza Aretoko bulego publiko guztiak (hall-a, kamerinoak, eszenatokia, aretoa, erakusketa-aretoa eta zerbitzuak), megafonia zerbitzua barne (gehienez 3 mikrofono) eta argien kontrola eta aretoa garbitzea.

Edozein ekipo tekniko eta beharrezko zerbitzu laguntzaile erabiltzeko, Zornotza Aretoko zerbitzu teknikoa daraman enpresarekin akordioa izatea beharrezkoa izango da. Zerbitzu honen kostoa Alokairuaren prezioatik kanpo egongo da.

PUBLIZITATEA	2007
- Filmeak hasi baino lehen ematen diren zinema-formatoko publizitate-iragarkiak emotea: iragarki bat	11,59 €
- Zinema-saioetan hilabetez agertzea iragarkia (gutxienez 12 iragarki)	116,91 €

Eskatzaileak Amorebieta-Etxanoko talde edo elkarte kulturalak direnean eta udalerrian kultur jarduerak burutzen dituztenean, AMETX Fundazioko Presidenteak zerbitzu hauek doan ematea baimendu dezake, betiere organo honen ustez jarduerok lehentasunezko kultur interesa dutenean edota talde edo elkarte hauek AMETX Fundazioarekin edo Amorebieta-Etxanoko Udalarekin indarrean dagoen hitzarmen bat sinatuta dutenean.

B) EPIGRAFEA: KULTURA ETA GAZTERIA SAILAK EMANDAKO ZERBITZUAK

	2007
- Jardueren kostuaren arabera eta ematen diren zerbitzuen arabera Hiriko koloniak	18,00 € tik 75,00 € ra asteko
- Jardueren kostuaren arabera eta ematen diren zerbitzuen arabera asteburuko ekintza ludikoak	0 € tik 75,00 € ra
Musika taldeek entseguetarako lokalak erabiltzea:	
- Entsegu kabina bakoitzeko tarifa erabiltzen deneko ordu bakoitzeko (gehinez ere 40 ordu hileko)	2,00 € orduko
- Taldeak hiru kide baino gutxiago dituenen (musikari 1 edo 2)	1,00 € orduko

- Taldeak bi kabinetan dagoen ekipamendua behar duenean, bietariko bat erabiltzeko moduan uzten ez duelarik (ahots bi edo bateria bikoitza)

4,00 € orduko

ESKENATOKI ERAMANGARRIEN ALOKAIURUA	2007
- Eszenatoki estalia, LARGAY modeloa, 12x8koa (96 m ²)	222,78 €/egun. Fianza: 341,42 €
- Eszenatoki estalia, ETXEKIT mod., 9x7,5koa (67,5m ²)	181,97 €/egun. Fianza: 264,68 €
- Eszenatoki estalia, ETXEKIT mod., 9x4,5koa (40,5m ²)	146,68 €/egun. Fianza: 231,59 €
- Eszenatoki estalia, ETXEKIT mod., 7x3koa (21 m ²)	111,39 €/egun. Fianza: 165,42 €

Eskatzaileak Amorebieta-Etxanoko talde edo elkarte kulturalak direnean eta udalerrian kultur jarduerak burutzen dituztenean, AMETX Fundazioko Presidenteak zerbitzu hauek doan ematea baimendu dezake, betiere organo honen ustez jarduerok lehentasunezko kultur interesa dutenean edota talde edo elkarte hauek AMETX Fundazioarekin edo Amorebieta-Etxanoko Udalarekin indarrean dagoen hitzarmen bat sinatuta dutenean.

C EPIGRAFEA): ZELAIETA ZENTROAK EMATEN DITUEN ZERBITZUAK

ZELAIETA ZENTROAREN KONTZERTUETARAKO ARETOA ETA AUDITORIUM-A ALOKATZEA	2007
- Prezioa orduko	90,00 €
- Egun erdi (4 ordu gehienez)	250,00 €
- Egun osoa (8 ordu gehienez)	400,00 €
- Jaiegun erdi	300,00 €
- Jaiegun osoa	500,00 €
- Soinu-aparatuak jarri behar badira	120,00 €
- Teknikoren bat behar bada	26,75 €/orduko
- Laguntzailereren bat behar bada	22,50 €/orduko

ZUZENENKO IKUSKIZUNAK KONTZERTU ARETOAN

2007

- Profesionalen ikuskizunetarako sarreraren prezioa tarte honetan

0 € tik 12,00 € ra

- Ikuskizun amateurretarako edo gainontzekoek antolatutakoetarako sarreraren prezioa tarte honetan

0 € tik 12,00 € ra

ZELAIETA ZENTROAREN LOKALAK ALOKATZEA	Amorebieta-Etxanon egoitza daben erakundeak	Amorebieta-Etxanon egoitza EZ daben erakundeak
- Prezioa orduko	20,00 €/orduko	30,00 €/orduko
- Egun erdi (4 ordu gehienez)	60,00 €/orduko	90,00 €/orduko
- Egun osoa (8 ordu gehienez)	100,00 €/orduko	150,00 €/orduko

TAILERRAK

Jardueren kostuaren, zerbitzuaren eta iraupenaren arabera: 1,50 eta 30,00 €/hilero bitartean.

Eskatzaileak Amorebieta-Etxanoko talde edo elkarte kulturalak direnean eta udalerrian kultur jarduerak burutzen dituztenean, AMETX Fundazioko Presidenteak zerbitzu hauek doan ematea baimendu dezake, betiere organo honen ustez jarduerok lehentasunezko kultur interesa

dutenean edota talde edo elkarte hauek AMETX Fundazioarekin edo Amorebieta-Etxanoko Udalarekin indarrean dagoen hitzarmen bat sinatuta dutenean.

D) EPIGRAFEA: EUSKARA ETA KULTURA ZERBITZUEN FUNDAZIO PUBLIKOAK (EUSKALTEGIAK) EMATEN DITUEN ZERBITZUAK

	07/08 ikasturtea
- HABEk diruzlagundatutako Ikasturte osoko eta trinkoetako kurtsoetan	1,10 €/orduko
- HABEk diruzlagundatutako Autoikaskuntzako ikasturte osoa eta trinkoa	1,25 €/orduko
- HABEk diruzlaguntzen EZ dauzan kurtsoetan	1,75 €/orduko

Matrikulen zenbatekoa osoa honela ateratzen da: ikasturte osorako ezarritako ordu kopurua bider prezioa/orduko. Prezio horren barruan sartzen dira materiala eta beste kontzeptu batzuegatiko kopuruak.

E) EPIGRAFEA: MUSIKA ESKOLAN EMANDAKO ZERBITZUAK

	Amorebieta-Etxanon erroldatuak (€/hilero)	Amorebieta-Etxanon erroldatuak EZ dagozanak (€/hilero)
	2007	2007
Teoriko - praktikoak	18,00 €	27,00 €
Instrumentua	32,00 €	48,00 €
Instrumentu erreforzatua	38,00 €	57,00 €
Instrumentu-Taldeak	18,00 €	27,00 €
Bloke osoa	57,00 €	86,00 €

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

1.- Matrikula: Uztailaren azkenean ordainduko da.
Gainerako tasak: Bederatzi kuota, Urritik Ekainerarte.

2.- Amorebieta-Etxanon erroldatu dauden ikasleentzat, kondizio bereziak:

a) Eskolako ikasle direnen familia unitateek, hileroko zenbatekoaren gutxipena izango dute, ondoren adierazten diren proportzioetan:

- Familia bateko bigarren kideak: % 50a
- Familia bateko hirugarren kideak: % 75a
- Familia bateko laugarren kideak: dohain

Gutxipen hauek, familia bereko 21 urtetik beherakoei aplikatuko zaizkie. Adin hortik gora, gutxipena %50a izando da kasu guztietan.

b) Instrumentu batean baino gehiagotan matrikulatzen diren ikasleei, matrikulazioko eta ikasleko ordainketa koefizientea aplikatuko zaie:

- Lehenengo instrumentua: %100a
- Bigarren instrumentua: %75a
- Hirugarren instrumentua: %50a

3.- Ikasleak, ezarritako gutxipenei eusteko eskubidea izanez gero, ezinezkoa izango da bi edo hiru gutxipen batera aplikatzea, eta komenigarriena zaiona aplikatuko da honelakoetan.

F) EPIGRAFEA: JAUREGIBARRIAKO KAMIOI APARKALEKUAREN ERABILERA:

- Irekitzeko agintearen gordailua: **21,36 €**
- Hileroko kuota: **64,14 €** kamioi bakoitzeko

Agintea itzuliz gero, gordailuaren zati proportzional bat itzuliko da:

- lehenengo urtean: gordailuaren %75
- bigarren urtean: gordailuaren %50
- hirugarren urtean: gordailuaren %25

Agintea hori baino beranduago itzultzen bada ez da inolako itzulketarik egingo.